

Eskubideen hezkuntzako ekimenak

ABIAPUNTUA

unicef 
hartzaro bakoitzarentzat



Haurren eskubideei, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari buruzko hezkuntzako materialak, baliabideak eta jarduerak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntzan egindako lanaren parte dira.

UNICEFek haurren eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu bere jardueraren guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta lurraldetan lan egiten dugu konpromiso hori ekintza praktikoa bihurtzeko, eta ahalegin berezia egiten dugu haur kalteberengana eta baztertuenengana iristeko, haur eta nerabe guztien onerako, leku guztietan.

Edizioa

UNICEF-Espainiako Batzordea Fundazioak argitaratua
Haurren Eskubideen eta Eskubide Digitalen Hezkuntza
Intzidentzia, Programa eta Aliantzen Zuzendaritza

Argitalpenaren koordinazioa: Amaya López de Turiso
Ekarpenak: Aridane Hernández, Oscar Belmonte, Carlos Cuesta,
Nacho Guadix

Posta elektronikoa: educacion@unicef.es
Webgunea: www.unicef.es/educa

2024ko abendua



Argitalpen hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internacional lizentziaren pean sortu da, beste lizentzia mota bat berariaz definitzen duten edukietarako izan ezik.

Edizio honek honako hauen irudi originalak ditu:

Azala: iStock.com/AaronAmat | 6. orrialdea: Freepik | 8. orrialdea: Freepik | 10. orrialdea: Freepik | 12. orrialdea: iStock.com/liravega | 14. orrialdea: Adobe Stock/VectorMine | 16. orrialdea: Adobe Stock/rudall30/TMvectorart | 18. orrialdea: Adobe Stock/Mary Long | 20. orrialdea: Adobe Stock/Chitrapon | 22. orrialdea: Adobe Stock/WAWAWA | 24. orrialdea: Adobe Stock/virinaflora | 26. orrialdea: Adobe Stock/SERHII

Finantzatzailea:



Argitalpen honek Espainiako Lankidetzaren laguntza jaso du, Espainiako Lankidetzaren Agentziaren (AECID) bitartez. Bertan biltzen den edukia UNICEF Espainiako Batzordearen erantzukizun eksklusiboa da eta ez du nahitaez AECIDen iritzia jasotzen.

EDUKIEN AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Haurren eta nerabeen eskubideen integrazioa Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP)	6
2. Eskubideen aldeko jarduerak Urteko Programazio Orokorra (UPO).....	8
3. Autoebaluazio instituzionala eta ekintza-plana	10
4. Irakasleen prestakuntza haurren eta nerabeen eskubideetan	12
5. Arriskuen analisia.....	14
6. Indarkeriari aurre egiteko ekintza-protokoloak lantzea	16
7. Eskola-jazarpena prebenitzeko plana	18
8. Partaidetza-egiturak sustatzea.....	20
9. Garapen jasangarriarekin lotutako jarduerak	22
10. Gorroto- eta diskriminazio-agerpenak prebenitzea	24
11. Eskubide digitalei buruzko hezkuntza.....	26

SARRERA

Gida hau irakurtzen ari bazara, posible da zure ikastetxeak interesa izatea **haurren eta nerabeen eskubideen hezkuntzaren ikuspegia** sustatzen UNICEFekin lankidetzan ari diren ikastetxeen sarean parte hartzeko. Ziurrenik ezagutzen duzu urtero aitortzen dugun "Haurren Eskubideen Hezkuntzan Ikastetxe Erreferenteak" aitzatespena eta, beharbada, zure ikastetxeak ekimenean parte hartu nahi izango du. Gerta daiteke ere eskubideen hezkuntza zehazki zer den ez jakitea, eta Interneten bilaketaren bat eginez iritsi izana honekin lotutako gairen batera.

Edonola ere, espero dugu gida honetan azaltzen duguna baliagarria izango zaizula hobeto ulertzeko haurren eskubideen hezkuntzaren **testuingurua**, horri ekiteak dakarren **konpromisoa**, eta hezkuntza-proiektuan haurren eskubideen ikuspegia ezartzen duten ikastetxeengan duen **eragin positiboa**.

Gida honek **oinarrizko ekimenak** ditu ardatz, haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia duen ikastetxe batek egin beharreko bidearen lehen etapetan aurrera eraman behar direnak. Hala ere, baliagarria izan daiteke programa garatzen ari diren eta aurrera egiteko zailtasunak dituzten ikastetxeentzat ere bai. Oinarrizko jardueren errepasoa lagungarria izan daiteke bultzada hartzeko.

Eskubideen hezkuntza esparru gisa

Haurren eta nerabeen eskubideen hezkuntza Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan (HEK) oinarritutako hezkuntza-ikuspegia da. HEK historian babes handiena izan duen nazioarteko ituna da, eta Espainiako legeriaren parte da 1989az geroztik. Hartara, nahitaez bete behar dira haren aginduak onetsi eta garatuko dituzten legeak, politikak eta prozedurak. Horrek bereziki eragiten die ikastetxeei; izan ere, legearen arabera, zuzenean, ikastetxeak haurren eta nerabeen hezkuntzarako eskubidearen bermatzaile dira, eta, zeharka, haurren gainerako eskubideak betetzearen erantzule, ikastetxeetako espazioetan eta eskola-orduetan.

Ikuspegi honen onura batzuk:

- Eskubideen ikuspegia esplizituki azaltzeak aukera ematen dio hezkuntza-komunitate osoari (baita hurrei ere) bertan **parte hartzeko**, konpromisoa hainbat mailatan erraztuz eta eskola-giroari lagunduz.
- Haurren eskubideen esparruak hari gidari bat ematen die hezkuntza-proiektuko hainbat jarduerari, eta jarduera horiek multzokatzen ditu, haurraren **interes gorena** erdigunean gera dadin.
- Haurren eskubideak eskolaren egunerokoan txertatzeak ikasle bakoitzaren gaitasunen garapena sustatzen du, ahalik eta **potentzial handiena** lortzeko aukera emanez.
- Eskubideen ikuspegia eta diskriminazioa bateraezinak dira, eta hezkuntza-komunitateak aurrera egiten du inor atzean uzten ez duten **bizikidetza eta elkar aditze moduak** aurkitzeko.

Eskubideen ikuspegia ez da ikastetxe bat azkar eta erraz aldatzen duen hagatxo magiko bat. **Prozesu** bat da, oso motibatzailea eta interesgarria, denbora, konpromisoa, prestakuntza eta plangintza eskatzen dituena. Emaitzak, ordea, **gogotik konpentsatzen du ahalegina**.

Ikastetxea haurren eskubideen bidez eraldatzeko prozesu bati ekitea bide luzea eta ez lineala izan daiteke, denbora eta baliabideak behar ditu eta batzuetan arreta sakona eskatzen du zenbait alderditan. Proiektu honi zergatik eta zertarako burutzen dugun ondo jakiteak denboran zehar norabidea eta motibazioa ez galtzen lagunduko digu. Gida honek lan horretan lagundu dizuela espero dugu.

Nola erabili gida hau

Gida honek haurren eta nerabeen eskubideen hezkuntzaren ikuspegian aurrera egiteko 11 urrats azaltzen ditu. Ez da nahitaez bide lineala, eta ordenak ez du zertan gidak zehaztutakoa izan behar.

Salbuespen bakarra, beharbada, lehen bi ekintzak izango dira: **haurren eskubideak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) integratzea eta jarduerak Urteko Programazio Orokorrean (UPO) sartzea**. Bi ekintza horiek lagundu egiten diote eskola-komunitateari bidearen hasiera ezartzen eta gainerako jarduerak egutegian egituratzen; beraz, baliagarria izan daiteke jarduera horiekin hastea.

Ekintza bakoitza fitxa independente batean dago deskribatuta, eta haren alderdi nagusiak laburbiltzen ditu. Fitxa horiek ez dira zehatzak, eta informazio gehiago aurki daiteke fitxa bakoitzean aipatzen diren baliabide gehigarrietan.

Azkenik, dokumentu bizia da hau, eta ekarpenik, zalantzarik edo iradokizunik baduzu, jakinarazi iezaguzu, mesedez, helbide honetara idatzita: educacion@unicef.es



HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEAK IKASTETXEAREN HEZKUNTZA- PROIEKTUAN (IHP) INTEGRATZEA

“Ez dago aldeko haizerik, nora doan ez dakienarentzat.”

— Séneca

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barruan haurren eta nerabeen eskubideak ikusaraztea.

HELBURUAK

- Ikastetxeak haurren eskubideen hezkuntzarekin duen konpromisoaren berri ematea hezkuntza-komunitateari eta bertan partaide izan daitezen bultzatzea.
- Haurren eskubideen aldeko hezkuntza-jarduerak barne hartzen dituzten urteko programazioak garatzeko oinarriak ezartzea.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ○ ○ ○ ○


Emandako denbora: ● ○ ○ ○ ○

Jarraipenaren beharra: ○ ○ ○ ○ ○

Ebaluazioa: ● ○ ○ ○ ○

Egutegia: Ikasturtearen hasiera.

EREMUAK



Haurren eskubideak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) sartzeak berekin dakar, nahitaez, prozesuan zehar 4 eremuak orekatzeko konpromisoa.

Funtsezko etapak

- IHPa lantzeko ardura duten alderdien artean **adostasuna** lortzea eskubideak sartzean, eta sartzen diren moduari buruz.
- Haurren eta nerabeen eskubideak aipatzea egokia dela uste dugun **IHPren atalak** identifikatzea (aurkezpenean izan daiteke, edo beste epigrafe batzuetara zabaldu, hala nola testuingurua, historia, nortasun-ezaugarriak, metodologia, bizikidetza-plana...).
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren aipamen bat edo haurren eta nerabeen eskubideei buruzko bestetako **erreferentzia argi bat**, haren printzipio gidariak edo eskola-ingurunean aplikatzearen alderdi zehatzak sartzea.
- Hezkuntza-komunitatearen artean IHP berria **ezagutzera ematea**, ikastetxeko ohiko komunikabideen bidez (iragarki-taula, webgunea, sare sozialak).

Zergatik da lehentasunezkoa eskubideak IHPan integratzea eskubideetan oinarritutako hezkuntza-proiektu batean?

Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan (IHP) haurren eta nerabeen eskubideak integratzea **beharrezko lehen urratsa** da eskubideekiko **ikastetxearen konpromisoa** esplizituki azaltzeko eta prozesuan zehar ezar ditzakegun helburuen inguruan **hezkuntza-komunitatea lerrokatzeko**.

IHPa eskubideen ikuspegitik birbideratzeko lanak haurren eta nerabeen eskubideen hezkuntzaren prozesuan murgiltzera garamatzaten **motibazioak** (zergatiak) **hobeto identifikatzen** laguntzen digu.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

IHPan integrazio hori egitean, **gure lana eskubideen ikuspegira bideratzen ari gara ofizialki**, eta, beraz, hezkuntza-komunitateak ikuspegi horri buruzko erreferentzia formala aurki dezake ikastetxeko dokumentu estrategikoetako batean.


Era berean, komunitateko kide berriei (ikasle berrien familiei, sartu berri diren irakasleei, kontratatatu berri diren langileei...) laguntza ematen zaie ikastetxeak eskubideekiko duen orientazioa ezagutzeko, ikastetxearekin duten harremanaren hasieratik.

Bestalde, haurren eta nerabeen eskubideak IHPan txertatzeak eskola programazioan sar daitezkeen jarduera eta ikuspegi berrietan **parte hartzea errazten** du, eta gainera, egin daitezkeen aldaketei laguntza formala ematen die.

Baliabide gehigarriak

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren testu osoa:

<https://www.unicef.es/educa/biblioteca/convencion-sobre-derechos-nino>



ESKUBIDEEI BURUZKO JARDUERAK SARTZEA URTEKO PROGRAMAZIO OROKORREAN (UPO)

“Etika, ekitatea eta justiziaren printzipioak ez dira aldatzen egutegiarekin.”

— D. H. Lawrence

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikastetxeko haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegiaren garapena planifikatzea ikasturte bakoitzean zehar.

HELBURUAK

- Ikastetxeak ikasturte bakoitzean haurren eskubideen defentsarekin eta sustapenarekin zerikusia duten zein jarduera lehenesten dituen zehaztea.
- Ikasturte bakoitzean proposatutako jarduerak garatzeko jarraibideak, baliabideak, denborak eta espazioak ezartzea.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ○ ○ ○


Emandako denbora: ● ● ○ ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ● ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ● ○ ○

Egutegia: Ikasturtearen hasiera.

EREMUAK



UPO berri bakoitzak pisu desberdina izan dezake eremu bakoitzean, hautemandako beharren arabera (ikus 3. ekimena: Autoebaluazioa eta Ekintza Plana), aurreko ikasturteetan egindako jardueren arabera edo une jakin batean gai jakin batzuei heltzeko egokitasunaren arabera.

Funtsezko etapak

- Gure ikastetxearentzat haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia garatzeko lehentasunezko zat jotzen ditugun **ekimenak eta jarduerak identi ikatzea**, gida honetan aurkeztutakoak barne.
- Ekimen eta jarduerak horiek **egutegian** zehar inkatzea, ordena logikoan eta gainerako eskola-programazioarekin integratu daitezten.
- **Baliabideen, espazioen eta denboren erabilera** planifikatzea, eta eskola-komunitateko talde bakoitzak jarduerak bakoitzean izango duen **parte-hartze maila** zehaztea.
- Jardueran parte hartzen dutenekin **komunikatzeko bideak** ezartzea, beren erantzukizun berri garaiz eta behar bezala izan dezaten.
- **Jarduerak bakoitzaren ebaluazioa** programatzea eta parte-hartzaileei bere emaitzen berri ematea.

Zergatik sartu behar dira haurren eskubideei buruzko jarduerak programazio orokorrean?

Ikasturtean zehar eskubideen arloan egingo den lanaren plangintza beharrezkoa da, ondokoetarako:

- Eskubideen hezkuntzan egingo diren jarduerak **aurreratzeko**.
- Abian jartzeko behar diren **baliabideak, denbora, espazioa eta parte-hartzaileak** kontuan hartzeko.
- Haien **koordinazioa, komunikazioa eta ebaluazioa** bultzatzeko.


UPOa eskubideen ikuspegitik egiteak, gainera, aukera ematen digu identifikatzeko **programazio orokorreko zein elementutan zeharkatu ahal den ikuspegi hori**, curriculumaren integrazioa sustatuz, ikasle bakoitzaren garapena maximizatzen bideratutako metodologiak bultzatuz, jarraipena egiteko behar diren bilerak eginez, ekimenen artean hari gidari bat sortuz, etab.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

- Ikasturte bakoitzeko jarduerak identifikatzeak erraztu egiten du urteetan zehar **gure beharrian zehatzetara egokitutako prozesu planifikatu** batean aurrera egitea.
- Egutegi bat ezartzeak eskubideen hezkuntzako jardueren **gainerako programazioekiko harmonia** errazten du, inprobisazioa eta denbora eta baliabide falta saihestuz.
- Jarduerak bakoitza alde aurretik planifikatzeak aukera ematen digu haiek **dimentsionatzeko eta errealistak izateko**, izango duten eraginari dagokionez.
- Jarduerak komunikatzeak aukera ematen dio hezkuntza-komunitateari jarduerak ulertzeko, ikastetxeko egunerokoan integratzeko eta **parte hartzerak motibatze**ko.
- Jarduerak ebaluatzeak eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazioa emateak aurrerapenak baloratzeko, akatsak detektatzeko, gardentasunez jokatzeko eta **aurrera egiteko** aukera ematen digu.

Baliabide gehigarriak

Beste ikastetxe batzuetan garatutako jarduerak egokien adibide hauek inspirazio-iturri izan daitezke zuretzat: <https://www.unicef.es/educa/buenas-practicas>



AUTOEBALUAZIO INSTITUZIONALA ETA EKINTZA- PLANA

“Planak alferrikakoak dira, baina plangintza dena da.”

— D. Eisenhower

DESKRIBAPEN OROKORRA

Autoebaluazio-dokumentu bat sortzea, informazioa emango duena eskola-komunitateak duen abiapuntuari buruz, haurren eskubideen hezkuntzaren ikuspegiari ekiteko, eta abiapuntuako egoerarekin bat datorren ekintza-plan bat lantzea.

HELBURUAK

- Hezkuntza-komunitateko talde guztiak inplikatzeko eskubideak eskolako egunerokoan txertatzeari buruzko hausnarketan.
- Ekintza-plan bat ezartzea, egungo egoeratik parte-hartzaileek autoebaluazioan adostutako helburuetarantz aurrera egitea ahalbidetuko duena.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ●●●○


Emandako denbora: ●●●○

Jarraipenaren beharra: ●●●○

Ebaluazioa: ●●●●○

Egutegia: Ikasturtearen hasiera.

EREMUAK



Autoebaluazioa partaidetzako jardura da nagusiki, eta eragin positiboa izan dezake eskola-giroan. Gainera, autoebaluazio-saiotetan egin beharreko hausnarketari esker, haurren eskubideak hobeto ezagutzen dira eta interes handiagoa sortzen da. Baliteke beharrezkoa izatea saioen diseinuan segurtasunarekin, pribatasunarekin eta zaintzarekin lotutako zenbait gai lantzea.

Funtsezko etapak

- Autoebaluazioari eta ekintza-planari buruz online dagoen **informazioa kontsultatzea**.
- **Eskola-komunitateko zein taldek** parte hartuko duen autoebaluazioan erabakitzea. Egiten den lehen aldian komeni da saioak zuzendaritza- eta irakasle-taldeetara mugatzea, baina eskubideen ikuspegiaren garapenean aurrera egin ahala, beharrezkoa da beste talde batzuen ikuspegia izatea.
- Prozesuaren arduradun bat edo bi aukeratzea eta saio bakoitzaren alderdi praktikoak antolatzea: data, parte-hartzaile kopurua, eskuragarri dagoen materiala, deialdia, taldeei aldezturik eman beharrekotako informazioa...
- Talde bakoitzean parte-hartzaileek adostutako hobekuntza-neurriak biltzea, hobekuntzen azken dokumentuaren parte izango direnak.
- **Ekintza-plana egitea** eta parte hartu zutenei prozesuaren itxieraren berri ematea
- Hezkuntza-komunitateari emaitzak jakinaraztea.

Zergatik dira beharrezkoak autoebaluazioa eta ekintza-plana?

Garrantzizkoa da prozesu hau aldizka egitea, ondokoetarako:

- Eskubideen hezkuntzari dagokionez, **zein puntutan gauden jakiteko**.
- Hezkuntza-komunitateko hainbat talderen **ikuspegi desberdinak ezagutzeko** eta konbergenteak diren edo landu beharrekotako desadostasunak dauden antzemateko.
- **Taldearen artean adosteko** zein diren autoebaluazio bakoitzaren ondoren lehentasunezkoak jotzen diren hobekuntza-neurriak.
- UPOn, urtean zehar, eskubideen hezkuntzan programatu daitezkeen **ekimenak gidatuko dituen ekintza-plana** egiteko.
- **Ezagutza hori autoebaluazio bakoitzarekin eguneratzeko**, neurriak ezarri ahala eta haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegiaren aurrera egin ahala.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

- Hezkuntza-komunitateko hainbat talde hausnarketa- eta hobekuntza-prozesu batean inplikatzeko zerikusia duten beste ekimen batzuetan **epe luzera parte hartzea** bultzatzen du, eta **eskola-giro** positiboa lortzen laguntzen du.
- Ikuspegi desberdinak ezagutzeak **abiapuntuko egoera hobeto aztertzea** eta errealitatearekin bat datozen helburuak ezartzea errazten du.
- Taldeek **adostutako hobekuntza-neurriak** ezartzeak neurri horiek betetzeko konpromisoari mesede egiten dio.
- Ekintza-plan bat egiteak **jarduerak garatzeko gida** gisa balio du, eta hezkuntza-komunitateari espero diren helburuen berri ematea ahalbidetzen du.
- **Hobekuntzak ezartzeko aldiaren ondoren** prozesua errepikatzeak aukera ematen du emaitzak ebaluatzeko eta ekintza-plana eguneratzeko, behar berrien arabera.

Baliabide gehigarriak

Autoebaluazioari eta ekintza-planari buruzko informazio praktikoa gehiago, hemen:

<https://www.unicef.es/educa/ideas/autoevaluacion-derechos>



IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA HAUR ETA NERABda."EEN ESKUBIDEETAN

"Hezkuntza gauza ikusezinak ikusarazteko artea da."

— Jean-François Lyotard

DESKRIBAPEN OROKORRA

Haurren eta nerabeen eskubideetan ikastetxeko irakasle-taldearen prestakuntza sustatzea, giza eskubideekin eta garapen jasangarriarekin lotutako gaietan.

HELBURUAK

- Eskubideen hezkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza metodologia propioa eskuratzea eta ikasgelako jardueren diseinuan aplikatzea.
- Eskubideen hezkuntza zeharkakoa izateko eta curriculumean integratzeko aukerak aplikatzea.
- Eskubideen hezkuntza ikastetxeko dinamika guztiei eragiten dien hezkuntza-ikuspegi gisa ulertzea.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ○ ○ ○ ○


Emandako denbora: ● ● ○ ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ○ ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ○ ○ ○

Egutegia: Ikasturtean zehar, ematen diren prestakuntzen arabera.

EREMUAK



Irakasleen prestakuntza eskubideak ezagutzeko ekimena da, ez soilik alderdi teorikoei eta edukiei dagokionez, baizik eta haien aplikazio praktikoari eta eskola-bizitzan txertatzeari dagokionez. Prestakuntzak bere helburuak lortzen dituen heinean, zeharkako eragina izango du eskubideen hezkuntzaren beste hiru eremuetan.

Funtsezko etapak

- Ikasturtean **eskubideetan prestatzeko zer aukera dauden aztertzea**.
- Baloratzea, klaustroaren barruan, zein pertsonak izan dezakeen interesa ikasturte bakoitzean prestakuntzak egiteko, jardueren plangintzaren arabera.
- Inskripzioa eta dokumentazioa.
- Jarraipena, ebaluazioa eta klaustroarekin bateratzea.

Zerk egiten du irakasleen prestakuntza hain baliotsua proiektuaren barruan?

Eskubideen hezkuntzaren ikuspegiak baditu zenbait berezitasun, metodologiari, inplementazioari, egokitzenari eta edukien integrazioari dagokienez, eta, horregatik, oso gomendagarria da klaustroaren gehiengoak ezagutzea eta, denborarekin, berarekin **lotutako konpetentziak eskuratzea**.

Garrantzitsua da prozesu hori aldizka egitea, **irakasleen ezagutzak eguneratu** ahal izateko eskubideen hezkuntzarekin lotutako gaietan:


- **Prestakuntza orokorra** beharrezkoa da oinarri bat ezarri ahal izateko, irakasleak inplikatu daitezen haurren eta nerabeen eskubideekin lotutako ekimenen diseinuan, plangintzan eta bilakaeran.
- Ikastetxeak eskubideen hezkuntzako proiektuan aurrera egin ahala, beharrezkoa izan daiteke irakasle batzuek **prestakuntza espezifikokoagoetan** parte hartzea.
- Interesgarria izan daiteke **prestakuntza horien alderdi batzuk partekatzea** ikastetxeko gainerako irakasleekin edo administrazio eta zerbitzuetako langileekin, onura mailakatu bat lortze aldera.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

- Irakasleen kidegoa eskubideen hezkuntzan trebatzeak erraztu egiten du jarduerak hedatzea, eta errazagoa egiten du beste ekimen batzuk abian jartzea.
- Eskubideen ikuspegiaren alderdi batzuk, errazak diruditen arren, ez dira agerikoak beren konplexutasun osoan; prestakuntzak gai horien **ikuspegi sakonagoa eta analitikoagoa** sustatzen laguntzen du, ekimenak eta jarduerak hobeto inplementatzea ahalbidetzen baitu.
- Prestakuntzak, gainera, eskubideen hezkuntzarekin lotutako irizpide objektiboei buruzko **adostasuna sortzen** laguntzen du, baita zenbait gairen inguruko subjektibotasuna gainditzen ere.
- Azkenik, prestakuntzak irakasleen jakintza eta eragina indartzen laguntzen du eskubideen arloan, eta **parte hartzeko** duten gaitasuna sustatzen du.

Baliabide gehigarriak

Hemen duzu eskuragarri aldizka proposatzen diren prestakuntza-jardueren buruzko informazio gehiago: <https://www.unicef.es/educa/formacion/cursos>



ARRISKUEN ANALISIA

“Arriskuak arina dirudienean, arina izateari uzten dio.”

— Sir Francis Bacon

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikastetxeko ikasleei eragin ahal dieten arriskuen azterketa egitea, osasun fisikoari zein psikosozialari dagokienez, prebentzio-neurriak eta -protokoloak lantzeko.

HELBURUAK

- Arrisku-tipologia bat ezarri ahal izatea, larritasunaren eta gertatzeko probabilitatearen arabera.
- Arrisku jakin batzuen aurrean zein talde eta pertsona izan daitezkeen bereziki kalteberak hautematea.
- Hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko zaintzaren eta babesaren kultura, arriskuak prebenitzeko eta, gertatzen badira, inpaktua murrizteko.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ● ○ ○


Emandako denbora: ● ● ● ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ● ● ●

Ebaluazioa: ● ● ● ○ ○

Egutegia: Ikastetxeko agendara hobekien egokitzen den unean, dokumentuaren aldizkako berrikuspenak aldizka programatzea (adibidez, urtero).

EREMUAK



Ekimen honen osagai nagusia babesa da, baina, era berean, parte-hartze handia eskatzen du azterketa osatu bat egin nahi bada, hezkuntza-komunitateko hainbat taldek arriskuaz duten pertzepzioa integratuko duena. Arriskuen analisiari jarraitzen dion prebentzio-lana oso onuragarria izan daiteke eskola-giroa hobetzeko.

Funtsezko etapak

- Ikastetxean dauden **arrisku fisikoak eta egiturazkoak** ebaluatzea, adin-talde bakoitzerako eta ikasleen eta ikastetxean lan egiten duten pertsonen dibertsitate funtzionala kontuan hartuta. Ebaluazio hori prebentzioko eta arriskuetaiko espezialisten laguntzarekin egin daiteke.
- **Osasunerako arriskuen** ebaluazioa, toxikologiko, biologiko edo klimatikoena, batez ere kontuan hartuta bereziki kalteberak diren pertsonak, adibidez, gaixotasun kronikoak, intolerantziak edo alergia dituzten ikasleak, baita muturreko egoerak ere, hala nola epidemiak, ezohiko gertaera klimatikoak edo ingurumen-kutsaduraren goraldiak.
- **Arrisku psikosozialen** ebaluazioa, ikastetxearen testuinguru sozioekonomikotik edo egoera partikularretatik eratorritakoak, bullying-egoerak, parekoen arteko jazarpena edo helduen abusu edo tratatu txarrak gertatzeko aukera barne.
- Egon daitezkeen arriskuak deskribatzeko **txostenak egitea**, gertatzeko probabilitatearen eta izan dezaketen larritasunaren arabera sailkatuta.
- Arriskuen ebaluazio-txostenetan hautemandako premiekin bat datozen **prebentzio-planak eta ekintza eta larrialdietako planak egitea**.
- Ebaluazioak, txostenak eta prebentzio- eta jardura-planak **aldizka berrikustea**.

Benetan beharrezkoa al da arriskuen analisisa?

Bai, zalantzarik gabe. Guztiok nahi dugu ikasleen segurtasuna, osasuna eta ongizatea arriskuan jartzen duten gertaerak inoiz ez gertatzea, baina hori saihesteko modurik onena prebenitzea da, eta **prebentzio eraginkorra** egiteko lehen urratsa izan daiteke **arrisku potentziala** ekar dezaketen alderdi guztiak bateratu ahal izatea.


Hezkuntza-komunitatea laguntza baliotsua izan daiteke **arriskuak identifikatzeko eta konponbideak bilatzeko**. Eskola-komunitateko hainbat taldek prozesuan parte hartzeak **erraztu eta eraginkorragoa egin** dezake prebentzio- eta ekintza-neurrien ezarpena.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

- Arriskuen prebentzioa **ikusezina da huts egiten duen arte**. Funtzionatzen duenean, ikasleen babesa bermatzeaz gain, eskola-giro ona bultzatzen du eta parte-hartzeari eta eskubideen aitortzeari euskarria ematen die.
- Arriskuen prebentzioak ondo funtzionatzen ez duenean, eta horiei behar bezala heltzen ez zaienean, **erdietsitako lorpen** asko arriskuan jartzen ditu, eta eragin negatiboa du **eskola-giroan** eta hezkuntza-komunitatearen **konfiantzan**.

Baliabide gehigarriak

Arriskuen analisiari eta beste babes-tresna batzuei buruzko informazio gehiago hemen duzu eskuragarri: <https://www.unicef.es/educa/proteccion>



JARDUTEKO PROTOKOLOAK LANTZEA INDARKERIAREN AURREAN

*“Indarkeriara ohitu egiten gara, eta hori ez da ona gure gizartearentzat.
Populazioa, sentikor izateari utzita, arriskutsu bihurtzen da.
— Isaac Asimov*

DESKRIBAPEN OROKORRA

Arriskuen analisiak jarduteko eska dezakeen protokoloen artean indarkeriari lotutakoak dira sentikorrean eta, legeak derrigorrezkotzat jotzen baditu ere, zaila izan daiteke horiei heltzea, arrazoi desberdinengatik.

HELBURUAK

- Ikastetxean indarkeriaren aurkako protokolo batzuk izatea, beharrezkoa denean eraginkortasunez aktiba daitezkeenak.
- Hezkuntza-komunitatea protokoloen diseinuaren eta komunikazioaren hainbat etapatan parte hartzera bultzatzea.
- Protokolo bakoitza ezartzeko interesa duten taldeei prestakuntza ematea.
- Protokoloak aktibatzean, ekarri dituzten emaitza onen edo arazoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, haien hobekuntza bultzatzeko.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ● ● ○


Emandako denbora: ● ● ● ● ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ● ● ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ● ○ ○ (protokoloa aktibatzen denean soilik)

Egutegia: Urteko plangintzaren arabera, autonomia-erkidego bakoitzeko nahitaezko protokoloak lehentasuna emanez.

EREMUAK



Babesa helburu duen jarduera izan arren, legeak garrantzi handia ematen dio eskola-komunitateak (espazituki ikasleek) protokoloetan parte hartzeari. Jardueraren plangintzan eta diseinuan garrantzitsua da hezkuntza-komunitateko taldeen parte-hartzea kontuan hartzea.

Funtsezko etapak

- Legeak indarkeriaren aurka ezartzen dituen **jarduera-protokoloak** ezagutzea: abusua eta tratu txarrak, eskola-jazarpena, ziberjazarpena, sexu-jazarpena, genero-indarkeria, etxeko indarkeria, suizidioa eta autolesioa, baita beste indarkeria-adierazpen batzuk ere (Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko 8/2021 Lege Organikoaren 34.1 artikulua).
- Une honetan **gure autonomia-erkidegoak dagoeneko araututa dituen protokoloak** identifikatzea eta horiei lehentasuna ematea, eta protokoloa testuinguru bakoitzean ezartzeko moduari dagokionez ikastetxearentzat zehazten duen erantzukizun-esparrua egiaztatzea.
- Gure ikastetxean protokoloak egokitzen, ezartzen eta komunikatzen lan egitea, **eskola-komunitatearen partaidetzarekin** (ikasleak barne).
- Hezkuntza-komunitateko taldeei **prestakuntza ematea** eragiten dieten prozeduretan, baldin eta indarkeriaren aurkako protokolo bat aktibatzea dakarren egoeraren bat jasaten badute edo horren berri badute.
- **Protokolo bat aktibatzen bada**, hura ebazteko beharrezkoak diren prozeduren jarraipena egitea.
- Aktibatutako protokoloaren **funtzionamendua ebaluatzea** eta hura hobetzeko beharrezkoak diren doikuntzak egitea bere erredakzioan, komunikazioan, prestakuntzan...

Indarkeriaren aurkako protokoloen garrantzia

Legezko baldintza izateaz gain, indarkeriarekin lotutako protokoloak ezartzea haurren eta nerabeen eskubideekin **ikastetxeak duen konpromisoaren erakusgarri** da.

Protokoloak behar bezala aktibatzea ikasleak babestearen aldeko apustua da, baita egoera txarrenetan ere, eta, prebentzio- eta babes-neurriekin batera, **ikastetxeko ikasleek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzen dute**.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

Protokolo horiek egoteak eta betetzeak ikasleen babesean duen eraginaz gain, **eskola-giroaren** gaineko onura dakar, eskola-komunitateko taldeen **bizikidetzak eta rolak errazten** dituelako:

- Ikasleentzat, protokoloak abian jartzerako orduan **parte hartzeak** erraztu egiten du beren eskubideak eta haien hezkuntzaz eta zaintzaz arduratzen diren helduen babes-betebeharrak hobeto ulertzea.
- Familientzat, ikastetxearekiko **konfiantza indartzea** dakar eta indarkeriarekin lotutako gaiak lantzeko prozedura normalizatuak daudela jakiteak lasaitasuna ematen die.
- Irakasle-taldearentzat, zuzendaritza-taldearentzat eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat, arrisku-egoeretan haiengandik espero den jarduera argitzea dakar, eta horrek hobetu egiten ditu **laneko ongizatea** eta egoera zailetan **jarduteko gaitasuna**.

Baliabide gehigarriak

Ikastetxeentzako haurren babes-tresnei buruzko informazio gehiago hemen aurkituko duzu: <https://www.unicef.es/educa/biblioteca/manual-herramientas-proteccion-centros-educativos>



ESKOLA-JAZARPENAREN PREBENTZIO-PLANA

“Nire zoriona osasun ona izatea da, beldurrik gabe lo egitea eta estutasunik gabe esnatzea.”

— Françoise Sagan

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikastetxearen testuinguruaren eta egoera bakoitzaren premia zehatzen arabera, eskola-indarkeria eta -jazarpena prebenitzeko eskola-giro egokia sortzea ahalbidetuko duten esku-hartzeak plani ikatzea.

HELBURUAK

- Eskola-jazarpena prebenitzeko hezkuntza-komunitateko taldeei zuzendutako ekintzak zehaztuko dituen plan bat egitea.
- Hezkuntza-komunitatea indarkeriaren prebentzioaren kulturen inplikatzeko.
- Ikasleek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubideari eta kidekoen arteko harremanetan dituzten erantzukizunei buruzko ezagutza sendotzea.
- Ikasleengan indarkeriarik ezaren, bakearen eta tratu onaren jarrerak sustatzea.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ○ ○ ○


Emandako denbora: ● ● ● ● ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ● ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ○ ○ ○

Egutegia: Arriskuak aztertu ondoren, eta urteko plangintzaren arabera, nahiz eta Bakearen Eguna bezalako datak lagungarri izan daitezkeen mobilizazio- eta hedapen-ekintzetarako.

EREMUAK



Jarduera honek ia erdibana lotzen ditu babesa eta eskola-giroa, prebentzio-jarduerak eragin handia baitute eskolan bizi den giroan. Hezkuntza-komunitateko hainbat talderen parte-hartzea beharrezkoa da planak arrakasta izan dezan, eta ikastetxearen partaidetza-egituraren arabera modulatu daiteke (ikus 8. ekimena).

Funtsezko etapak

- Arriskuen analisisian oinarrituta (5. ekimena), **prebentzioaren lehentasunak ezartzea**, indarkeriarik gabeko eskubideari buruzko ezagutzari, jazarpen-jokabideak identifikatzeari, pertsonen arteko komunikazioari edo gatazkak ebazteko trebetasunei dagokienez.
- Lehentasunezko zat hartzen diren alderdiak lantzeko **jarduerak diseinatzea**, eskola-komunitateko hainbat taldek diseinuan, sustapenean eta abian jartzean parte hartuz.
- Jarduera horiek **eskola-egutegiaren** barruan antolatzea.
- Ikasturte bakoitzerako **programatutako prebentzio-jarduerak** egitea, baita haien garapenaren jarraipena eta ebaluazioa ere.
- **Plana berriz diseinatzea eta eguneratzea**, lortutako hobekuntzen edo antzemandako premia berrien arabera.
- Denborak aurrera egin ahala, interesgarria izan daiteke **autonomia handiagoa ematea ikasleei** planaren berrikuspenean, abiaraztean, jarraipenean eta ebaluazioan, haien ulermen-mailaren eta heldutasun-mailaren arabera (adin txikiagoko ikasleekin, alderdi horretan familiak kontuan hartzeko aukera dago).

Zeintzuk dira eskola-jazarpena prebenitzeko plan baten gakoak?

Aukera: Prebentzioaz ari garenean, jazarpenik hautematen ez den eskolako une eta testuinguru jakin batez ari gara, eta gerta liteke horri aurrea hartzea beharrezkoa edo lehentasuneko ez izatea. Horixe da, hain zuzen ere, prebentzio eraginkorra hasteko unerik onena.

Erantzukizun partekatua: Jazarpena ez da norbanakoen arteko arazoa, egoera hori ahalbidetzen duen ingurune bat ere egon behar baitu. Jazarpenari aurrea hartzeko, normalizazioa prebenitu behar da, eta hori eskola-komunitate osoaren erantzukizuna da.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

Jazarpena prebenitzeko planek eta barne hartzen dituzten jarduerak ikasleek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubideari buruz duten ezagutza eta kontzientzia indartzen laguntzen dute, hiru ikuspegi osagarritatik:

- Bakea, indarkeriarik eza eta tratu ona behar dutenean **eskatu eta defenda ditzaketen eskubideak** direla eta indarkeriarako justifikaziorik ez dagoela ulertzea.
- **Errespetuzko, enpatiazko eta duintasuneko jarrerak** sustatzea, beste ikasle batzuen bakerako eskubidea babesteko erantzukizuna hartzeko, hura arriskuan jartzen denean.
- Jazarpena prebenitzen denean ikasle guztien babesa indartzen da, biktima posibleetatik harago. **Ikasleen artean indarkeriazko jarrerak saihestea** bere beste helburuetako bat da, eta funtsezkoa da eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren barruan, indarkeria erabiltzea bateraezina baita bakean bizitzeko eskubidearekin.

Baliabide gehigarriak

Ikastetxeentzako haurren babes-tresnei buruzko informazio gehiago hemen aurkituko duzu:

<https://www.unicef.es/educa/proteccion>



PARTAIDETZAKO EGITURAK SUSTATZEA

“Txikienak ere aldatu ahal du etorkizunaren bilakabidea.”

— Galadriel (“Eraztunen Jauna”, J.R.R. Tolkien)

DESKRIBAPEN OROKORRA

Egiturak eta jarduerak diseinatzea eta abian jartzea, eragiten dieten erabakietan ikasleek parte hartu ahal izan dezaten, haien behar, gaitasun eta interesekin bat etorritz.

HELBURUAK

- Haur eta nerabeen partaidetza sustatzea ikastetxearen erabakietan.
- Haur eta nerabeen partaidetza-prozesuak txertatzeko espazio eta une egokienak identifikatzea.
- Ikasleen partaidetza bideratzea ahalbidetuko duten jarduerak, taldeak eta planak diseinatzea.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ● ● ○


Emandako denbora: ● ● ● ● ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ● ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ○ ○ ○

Egutegia: Eskola-egutegiaren edozein unetan.

EREMUAK



Jarduera hau partaidetza sustatzera bideratuta dago argi eta garbi. Hala ere, beharrezkoa da partaidetzazko prozesuetan ikasleak babestea, garrantzizko alderdia baita hau. Eskubideak ezagutzea beharrezkoa da partaidetza benetakoa izan dadin eta ekintza sinboliko batean gera ez dadin. Parte hartzeak mesede egin diezaioke eskola-giroari. Hala ere, parte hartzea, berez, eskubidea da, eta ez da soilik klima hobetzeko elementu gisa erabili behar.

Funtsezko etapak

- Haurrek eta nerabeek parte hartzea eta ikastetxeetan dituzten aukerak **ezagutzea**.
- Ikasleek ikastetxean duten **egungo partaidetza-maila** identifikatzea. Zer egitura erabiltzen diren, nola funtzionatzen duten eta nortzuek erabil ditzaketen.
- Ikasleen **partaidetza handiagoa izateko aukera** dagoen zehaztea, eta zein baldintzatan susta daitekeen.
- Ikasleengan **parte hartzeko eskubideari buruzko ezagutza** sustatzea: zertan datzan, zergatik den garrantzitsua, zer erantzukizun dakartzan...
- Abian jarritako jarduera, proiektu eta prozeduretan ikasleek parte hartzeko **espazioak eta uneak** bilatzea.
- **Jarduera, proiektu edo prozedura berrietan** identifikatzea nola eman ahal diogun lekua ikasleen partaidetzari, bai **diseinuko eta plangintzako** faseetan, bai **egikaritzan, jarraipenean eta ebaluazioan**.

Zergatik da beharrezkoa ikasleen parte hartzea?

Beharrezkoa da haurren eta nerabeen partaidetza sustatzea, ikastetxea baita haiek eskuratu dituzten **konpetentziak herritar gisa** praktikan jarri ahal izateko lehenengo lekua. Parte hartzeko eskubideak, adierazpen-askatasunerako, informaziorako eta elkartzeko eskubideak barne, helduaroan erabat garatu aurretik **baliatu ahal den eskubidea** izan behar du.

18 urte betetzean berez garatzen ez diren **ezagutzak, trebetasunak eta jarrera konplexuak** parte hartzeko konpetentzien barruan sartzen dira, haurtzaroan eta nerabezaroan **urratsez urrats eskuratu** behar direnak. Gure eskubideen eta horiei lotutako erantzukizunen ezagutza, komunikatu edo negoziatzeko trebetasunak, eta enpatia, elkarriketa eta errespetuzko jarrerak eskolan parte hartuz indartu daitezke.


Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

Ikasleen partaidetza ez da beti integratzeko erraza, zenbaitetan arrazoi praktikoengatik, baina gehienetan hezkuntza-komunitatearen barruan aurki daitezkeen oztopoengatik ere. Hala ere, ikasleen partaidetzak eskubideen hezkuntzako jarduerak errazten ditu:

- Partaidetzak aukera ematen du **eskubideak praktikan jartzeko** eta haien eguneroko dimentsioa hobeto ulertzeko, teoritik aldenduz. Izan ere, askotan, nahi gabe, eduki didaktiko gisa bakarrik lantzen ditugu.
- Partaidetzak **erantzukizuna dakar** eta ikasleak parte hartzen duten erabakien eta ekintzen erantzule egiten ditu. Horrek potentzial handia du **eskola-giroa** hobetzeko.
- Partaidetzak ikasleak **babesteko** ekintzak ere errazten ditu, komunikazio segururako egiturak, espazioak eta tresnak ematen baitizkie.

Baliabide gehigarriak

Ikasleek parte hartzeko egiturak, espazioak eta jarduerak sustatzeari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu hemen: <https://www.unicef.es/educa/participacion>



GARAPEN JASANGARRIAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

"Munduari egiten dioguna, geure buruari egiten diogu."
— Mahatma Gandhi

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikasturtean zehar jarduerak garatzea, ikasleek jasangarritasunari buruz dituzten ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak indartzeko.

HELBURUAK

- Jasangarritasunari lotutako jarduerak diseinatzea, arlo horretan munduak aurre egin behar dien erronkak ikasleek uler ditzaten.
- Mundu jasangarriago, bidezkoago eta baketsuago baterantz aurrera egitearekin bateragarriak diren jarrerak eta jokabideak sustatzea.
- Ingurumenari, gizarteari, ekonomiari eta teknologiari lotuta, gure ikasleek dituzten erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren konpetentziak indartzea.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ○ ○ ○


Emandako denbora: ● ● ○ ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ○ ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ○ ○ ○

Egutegia: Eskola-egutegiko edozein unetan. Gai honekin lotutako munduko egunak funtsezko une gisa erabil daitezke.

EREMUAK



Garapen jasangarriarekin lotutako jarduerak zerikusi handia dute eskubideak ezagutzearekin eta partaidetzarekin. Zeharka, eskola-giroa hobetzen laguntzen dute, eta jasangarritasunaren arloko arazoetatik eratorritako zenbait arrisku ulertzen laguntzen duten heinean, babesa ere lortzen laguntzen dute.

Funtsezko etapak

- Garapen jasangarriari buruz etapa eta maila bakoitzean landu nahi ditugun gaiak **zehaztea**, curriculumaren integrazioaren, ikasleen interesen eta heldutasun-mailaren arabera.
- **Orientazio praktikoko** gai, jarduera eta proiektuak, edo **mobilizazio, ekintza eta zerbitzu** proposamenak **teorikoki jorratzea** interesgarriagoa izan daitekeen baloratzea.
- Garapenerako hezkuntzaren (GH) zein **tresnak eta ikuspegik** lagundu ahal diguten zehaztea, proposamenak hobeto planteatzeko.
- Talde bakoitzarentzat lortu nahi dugun ikuspegira egokitu daitezkeen **materialak eta baliabide** didaktikoak identifikatzea.
- Haurrek eta nerabeek **parte hartzeko** bideak ezartzea, halakorik ahalbidetzen duten proiektu eta jardueretan.
- Jardueren **jarraipena eta ebaluazioa** egitea.

Zergatik da garrantzitsua ikuspegi globala eta garapen jasangarrikoa?

Gero eta **interdependenteagoa** den mundu batean bizi gara, eta badirudi urruneko egoerek edo itxuraz guran eraginik ez duten egoerek eragina izan dezaketela gure bizitzan. Gure ikasleei **dimentsio global** hori hartzen lagunduko dieten konpetentziak eskuratzea gero eta beharrezkoagoa izango da etorkizunean haiek garatu ahal izateko.

Gainera, jasangarritasunaren ideia beharrezkoa da ikasleak beharrezko trebetasunez hornitzeko, **mundu oparo, ekitatibo eta bidezko** bat lortzen laguntzeko. Ulertu behar da garapena ezin dela jasangarria izan beste pertsona batzuen ongizatea arriskuan jartzen badu, bakea sustatzen ez badu edo giza eskubideak alde batera uzten baditu, beharrezkoa baita **haien eta beste pertsona batzuen eskubideak babestu** ahal izateko.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

Garapen jasangarriaren ikuspegiak mundura zabaltzeko ikuspegia integratzeko aukera ematen du, eta ondokoak lortzen lagun dezake:

- **Eskola-giroa** hobetzea, hezkuntza-komunitate osoa inplikatzan duten mobilizazio-jardueretan parte hartuz, **elkartasuna** oinarri hartuta.
- **Partaidetza** bultzatzea, ingurunea eta bizikidetza hobetzeko ikasleengandik sor daitezkeen ideiak abian jarritz.
- **Eskubideen ezagutza** indartzea, munduko beste pertsona batzuei eragiten dieten egoeretan **dimentsio praktikoa eta erreal** batekin lotzean.
- Ikasleen **garapen soziala**, emozionala, etikoa eta kognitiboa azpimarratzea, munduak aurre egin beharreko erronkekin lotutako xedeak beren motibazio akademikoetan txertatuta.

Baliabide gehigarriak

Garapen jasangarriko hezkuntzari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu hemen:

<https://www.unicef.es/educa/desarrollo-sostenible>



GORROTO ETA DISKRIMINAZIO-AGERPENAK PREBENITZEA

*“Beldurak haserrea dakar, haserreak gorrotoa, gorrotoak sufrimendua.”
—Yoda maisua (“Mamu mehatxua”, George Lucas)*

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikasleengan gorroto-, diskriminazio- eta intolerantzia-agerpenen garapena prebenitzeko ekimenak abian jartzea.

HELBURUAK

- Ikasleek diskriminaziorik eta indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea babestea.
- Ikastetxea bertan ikasten eta lan egiten duten pertsona guztientzako babes-ingurunea dela ziurtatzea.
- Tolerantzia, bakea eta justizia sustatzen duten balioetan hezte.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ● ● ○


Emandako denbora: ● ● ● ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ● ● ○

Ebaluazioa: ● ● ● ○ ○

Egutegia: Eskola-egutegi osoan zehar. Egutegiko data garrantzitsuenekin lotutako jarduera puntualak egon daitezkeen arren, egokiena prebentzioa etengabeko hobekuntza-prozesu gisa hartzea da.

EREMUAK



Gorroto- eta diskriminazio-agerpenak prebenitzearekin lotutako jarduerak garrantzi bera dute eskubideen hezkuntzako 4 eremuetan.

Funtsezko etapak

- Gure ikastetxeko gizarte-, kultura- eta ekonomia-testuinguruaren arabera, **arrisku handieneko eremuak** zein diren identi ikatzea, lehentasunezko zat jotzen ditugunei heldu ahal izateko (arrazakeria, sexismoa, homofobia, aporofobia...).
- Gorroto- eta diskriminazio-adierazpenak ahalbidetu ditzaketen **testuinguruko faktoreak** hautematea (ingurunea, gertaerak, sare sozialak...).
- Testuinguruko faktoreetan eragiteko jarduerak diseinatzea, eta ikasleei gorrotoaren eta diskriminazioaren **kausak identi ikatzen** laguntzea.
- **Estereotipoak, joerak eta aurreiritziak** identifikatzeko hezteak.
- Identifikatzea zer **jokabide, jarrera eta diskurtso** izan daitezkeen ikasleen gorroto- eta diskriminazio-adierazpenen adierazle. Jokabide, jarrera eta diskurtso horien aldaketa bilatzea.
- Ikasleen ekimenak **baloratzea eta ezagutzea**, haien inguruan hautematen dituzten gorroto- eta diskriminazio-adierazpenei azkena emateko.

Zergatik da ezinbestekoa gorrotoa eta diskriminazioa prebenitzea?

Gorrotoa, bai sufritzen duena, bai jasaten duena biktima bihurtzen duen **sentimendua** da, batari zein besteari mugatzen baitizkio bizi betea izateko aukerak. Haurtzaroan gorroto-adierazpenak prebenitzean, laguntzen ari gara haien **osasun mentala** babesten, elkarrekin bizi betea ahalbidetuko dieten trebetasun pertsonalak sustatzen, eta gizarte bidezkoago bat eraikitzen.

Bestalde, kolektibo eta ezaugarri pertsonal jakin batzuei buruz oraindik ere bizirik dirauten estereotipo eta aurreiritzi negatiboetan antzematen diren **jokabideen adierazpena** da diskriminazioa. Diskriminazioa bidegabekoa izateaz gain, gizarte osoaren garapen-**aukerak mugatzen ditu**, oztopatu egiten baitu kide batzuek beren potentziala garatzea eta aurrera egiten laguntzea.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?


Gorrotoaren eta diskriminazioaren agerpenak prebenitzeko lanak aukera ematen dio hezkuntza-komunitateari introspektzioa egiteko, antolaketaren kulturari buruz hausnartzeko eta etengabeko hobekuntza-prozesuari ekiteko, ondokoetan eraginez:

- **Eskola-giroan**, gure balioen, gure sinesmenen eta gure ekintzen artean egon daitezkeen kontraesanak ikusaraziz eta horiek bat etortzeko modu bateratuak bilatuz.
- **Partaidetzan**, pertsona eta talde guztien inklusioa bultzatuz.
- **Babesean**, ingurune seguru bat sortuz, non inor ez den diskriminatzen bere ezaugarri pertsonalengatik edo familia-inguruabarrengatik.
- **Eskubideen ezagutzean**, diskriminaziorik eza baita Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio gidarietako bat, eta hori gabe ezin da ondo ulertu eskubideak nola aplikatzen diren.

Baliabide gehigarriak

Diskriminaziorik ezari buruzko informazio gehiago hemen aurkituko duzu:

<https://www.unicef.es/educa/no-discriminacion>



ESKUBIDE DIGITALEI BURUZKO HEZKUNTZA

“Tamalez, argi geratu da gure teknologiak gure gizatasuna gainditu duela.”
— Albert Einstein

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ikasleei beren eskubide digitaletan eta beste pertsona batzuen eskubideez gehiago jabetzeko aukera emango dieten proposamenak sartzea.

HELBURUAK

- Eskubide digitaletan eta herritartasun digitalean hezteak.
- Ikasleei Interneten eta sare sozialen arriskuetatik babesteko beharrezko konpetentziak eskaintzea.
- Bizitza digitala eguneroko bizitzako beste alderdi bat bezala uler dezaten sustatzea, bere onura, arazo, muga eta ondorioekin.

ABIAN JARTZEA

Konplexutasuna: ● ● ○ ○ ○


Emandako denbora: ● ● ○ ○ ○

Jarraipenaren beharra: ● ● ○ ○ ○

Ebaluazioa: ● ● ● ○ ○

Egutegia: Eskola-egutegi osoan zehar. Eskubide digitalen ezagutza haurren eta nerabeen eskubideekin lotutako beste jarduerak batzuetan sar daitezke zeharka.

EREMUAK



Horrelako jardueretan gehien lantzen diren bi eremuak, batez ere hasieran, eskubideen ezagutza eta babesa dira. Aurrerago, ikasleek konpetentziak eskuratu dituztenean, nabarmenagoa izango da partaidetzaren papera eta eskola-giroaren gaineko eragina.

Funtsezko etapak

- Ikastetxean teknologiak duen erabilerari buruzko **diagnostiko** bat egitea: zeintzuk diren indarguneak, horietan oinarritzeko eta hobetzeko arloak, etab.
- Hezkuntza-komunitateko taldeen artean teknologiaren erabilera arduratsuari buruzko **informazioa eta baliabide praktikoak zabaltzea**.
- **Familiekin**, hauteman ditugun teknologiaren erabilerari buruzko gairik premiazkoenak lantzea, bereziki ikasleentzat arriskutsuak izan daitezkeenak.
- Ikastetxearen barruan **datuak babestearekin** zerikusia duten gaietan aurrera egitea.
- Teknologiaren erabilera arduratsua sustatzen duten ekimenetan **haurrek eta nerabeek parte har dezaten** sustatzea. Ikasleengandik abiatzen diren ideiak baloratzea eta saritzea.
- Ikasturtean zehar gai honi buruz garatu diren ekimenen **jarraipena eta ebaluazioa egitea**.

Zergatik da beharrezkoa eskubide digitaletan hezteak?

Haurren eskubideak **mundu digitalean islatzen** dira eta, beraz, mundu “errealean” eskubideetan hezteko eta babesteko ahalegin guztiak egin behar ditugu, gure ikasleek eskubide horiek mundu digitalean arriskuan ikusten dituzten bitartean.

Haur eta nerabe guztiek **konpetentzia digitaletan oinarritutako hezkuntza** behar dute, bizitza digitalari buruzko erabaki informatuak eta kontzienteak hartu ahal izateko. Gainera, ulertu behar dute beren eskubideak online babesteak oso modu errealean eragiten duela beren bizitzan.

Hezkuntza digitalaren alderdi garrantzitsu bat **arau-hausteen prebentzioa** da, gure ikasleak jakin gabe gera ez daitezen beste pertsona batzuen eskubideak arriskuan jarri dituzten egoeretan.

Nola ematen die bidea eskubideen hezkuntzako beste ekimen batzuei?

Mundu digitala mundu errealearen parte da, eta eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegia ez litzateke osoa izango eskubide digitalak sartuko ez bagenitu.

- **Eskubideen ezagutza:** Haurren eta nerabeen eskubideak Interneten eta sare sozialetan ere erabiltzen direla jakitea, haien online jardueraren gaineko erantzukizunak beren gain hartu ahal izan ditzaten.
- **Partaidetza:** Mundu digitalak aukera asko ematen dizkie haur eta nerabeei parte hartzeko, partaidetza-egitura tradizionaletan existitzen ez diren moduetan. Parte-hartze seguru eta arduratsua izateko, beharrezkoa da informaziorako eta adierazpen-askatasunerako eskubideak hobeto ulertzea.
- **Babesa:** Babesa funtsezko gaia da, ez bakarrik eduki kaltegarrien edo legez kontrakoaren aurrean, baita kontsumo-ohiturei, erabilera-denborei, osasun mentalari, ongizateari eta harremanei dagokienez ere.

Baliabide gehigarriak

Eskubide digitaletan buruzko informazio gehiago aurkituko duzu hemen:

<https://www.unicef.es/educa/derechos digitales>

Haurtzaro bakoitzarentzat

Nornahi dela ere.

Nonahi bizi dela ere.

Haur bakoitzak bere haurtzaroaz gozatzea merezi du.

Etorkizuna izatea.

Aukera bidezkoa izatea.

Horregatik dago hor UNICEF.

Haur guzti-guztientzat.

Egun batean bai eta hurrengoan ere bai.

190 herrialde eta lurralde baino gehiagotan.

Iristea zailagoa izaten den haiengana iristen.

Laguntzatik urrunen daudenengana.

Atzerago geratu direnengana.

Baztertuenengana.

Horregatik gaude azkenerraino.

Eta ez dugu inoiz amore ematen.



haurtzaro bakoitzarentzat